

Lankide agurgarri hori:

Honen bidez jakinarazi nahi dizugu **Arrisku psikosozialen ebaluazio** prozesuarekin jarraitzen dugula, **Laneko Arriskuen Prebentziorako Planaren** esparruan.

Amaitu da fase kuantitatiboa, eta orain **fase kualitatiboari** ekingo diogu, FPSICO galdera-sortaren bitartez. Fase horren helburua ebaluazioa osatzea da, emaitzak zehazte edota argitze aldera.

Hala, **banakako elkarrizketa** laburrak egingo ditugu (**20 minutukoak**). Elkarrizketak egitea **boluntarioa** da. OSARTENeko Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikariek egingo dituzte **apirilaren 13tik 24ra** (aurreko fasean ere haiekin aritu ginen lankidetzan).

Elkarrizketak aurrez aurre (behean adierazten da zer zentrotan) edo TEAMS bidez egin ahal izango dira, **09:00etatik 17:00etara**.

Jakinarazten den informazioa **anonimatu** egingo da, eta **erabateko konfidentziasunez** tratatu. Izan ere, honen helburua ez da pertsonak ebaluatzea, baizik eta **erakundean hobetzeko aukerak bilatzea**.

Parte hartzeko interesa baduzu, bidali mezu bat Iñigo Calcedori (icalcedo@osarten.com) honakoak adierazita:

Ikastetxearen kodea:			
Kidegoaren / lanbide-taldearen kodea:			
Elkarrizketaren formatua: (markatu guztiak berdin bazaizu)	Aurrez aurrekoa	Hezkuntzako LAPZren egoitza GASTEIZ Vicente Manterola, z/g, 01013 Vitoria-Gasteiz (Andra-mari eskolaurreko zaharra) Telefonoa: 688 670 550	
		Víctor Tapia HLHI LAGUARDIA Gaztelu kalea z/g, 01300 Telefonoa: 945 187035	
	TEAMS		
Hizkuntza ⁽²⁾ : (markatu guztiak berdin bazaizu)	Euskara		
	Gaztelania		

⁽²⁾ Osarten saiatuko da elkarrizketa pertsonak eskaeran aukeratzen duten hizkuntza koofizialean egiten

Izena emateko azken eguna **martxoaren 31** da.

Izena ematen dutenen artean lagin adierazgarri bat aterako da. Hurrengo asteetan, Iñigo lagina osatzen dutenekin harremanetan jarriko da, elkarrizketaren eguna eta ordua adosteko.

Eskerrik asko zure laguntzagatik, garrantzitsua da.